

### **1-2050ean, Zumaiak zenbat biztanle izango ditu?**

Ba, gaur egun baino gehiago, nahiz eta jende asko etorri da eta jende gazteago dago orduan, espero dut jende gehiago egotea Zumaian

### **2-Zahar eta gazteen arteko proportzioa nolakoa izango da?**

Ba, proportzioan, gaur egun baino gazte gehiago. Lehenago, lehenengo galderan esan dudan bezala azkenean jende gazte gehiago etortzen da oneraino bizitzera eta jende gehiago azkenean ume gehiago ditugu eta horregatik usten det gazte gehiago egongo direla proportzioan

### **3-Jatorriari dagokionez, nolakoa izango da herria?**

Ba, nik usten dut azkenian atzerritik jende gehiago etorriko dela jende asko bere etxetik kanpora etorri beharko direlako han ez dutelako ezer ez eta azkenean hemen ziurtasuna dago, oso eroso dago Zumaian bizitzeko eta azkenean jende asko etorri egiten da orduan hobe eta azterritik jende asko nahiz eta hemengo jende asko ere egongo dela.

### **4-2050ean, nolakoa izango da zumaiarren aberastasun maila dirutan?**

Ba, nik usten det antzekoa. Azkenean lan eta lan egin behar dugu, ez dago jende asko hemen denda askorekin. Azkenean, denda asko ixten ari dira orduan jendea ba igual igual etxeak eta dana igotzen ari dira eta ez dago denentzako dirua

### **5-Nolakoa izango da herriko merkataritza?**

Ba, bertako merkataritza asko ahulduko da. Azkenean, gu gazteok interneten bidez asko erosten dugu, denbora ez dugu orduan erosoago da internetekin hasi, erosi, etxera ekarri eta ez dugu denborarik dendetara joateko. Nik usten dut ahulduko dela pixkanaka pixkanaka.

### **6-Zumaiarrak nola mugituko dira herrian bertan?**

Ba, azkenian gaur bezela oinez, bizikletez, garraio publikoen bidez. Azkenean gasolina asko igo da eta denontzako ezin da eta ezin dugu erabili orduan lanera joateko, eskolara joateko etab hobeago oinez, bizikletez edo kanpora atera baldin behar bagara azkenean garraio publikoa merkeago ateratzen zaigu eta dana guztiz hobe eta garraio publikokin eta hemen herrian bertan garraio beste bat jartzen baldin badu beste tokietara joateko, hobe ere bai

### **7-2050ean, Zumaian klima aldaketaren ondorioak jasango al ditugu?**

Momentuz ez dut uste. Hau da pixkat eguraldiaren arabera . Agian igertzeko moduak izango ditugu azkenean ura bere tokila bilatzen duelako eta gu gizakiok urari tokia kendu diogu orduan nik usten dut nabarrituko dugula orduan itsasoren maila asko nabaritzen ari da.

### **8-Itsasoaren mailaren igoerari aurre egiteko, zer neurri hobetsiko zenuke?**

Ez nuke ezer egingo, lehenik esan dudan bezala, azkenean gu gizakiok urari lekua kendu egin diogu eta ura bere tokia behar du orduan berdin du zer jartzen duzu, azkenean ura bere tokia behar duelako eta hemendik edo beste aldetik ura bere tokia hartu behar du. Zertarako egin, ura gero berriz ere desegin behar du berriz. Orduan ez du merezi ezer egitea

### **9-Herri nortasuna asko aldatuko al da?**

Nik usten dut gure ohiturak eta hizkuntza mantenduko ditugula. Gaur egun dana Euskaraz egiten dugu, dana toki guztietan Euskaraz egiten duzu bakarrik herdaldunak Erderaz edo atzerriko jendea bere hizkeran hitz egiten dute baina guk azkenian hemen dana Euskaraz egiten dugunez, gure ohiturak eta espero ez kentzea eta pixkat guztion artean mantendu eskertzen delako gure ohiturak eta mantentzea.

### **10-GALDERA OROKORRA**

#### **2050ean, gaur egun baino hobeto edo okerrago biziko dira zumaiarrak?**

Espero hobeto bizitzea. Baita ere faktore guztiak izan behar dira kontuan: orain harte honela segi, diru kopurua berdin, pisuak eta asko ez igotzea, alokatze mota dexente baino gutxiago jende gazteak ere ba etxetik kanpora joateko eta erraztasunak edukitzeko ere bai ikasteko eta etxeak erosteko eta dana eta espero dut pixkanaka pixkanaka hobetzea